

DIRU-ITURRIAK:

• Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Haurrak zaintzeko plataformak prezioen igoera ikusi du, laugarren urtez jarraian, lurralde nazional osoan. Batez besteko tarifa ia euro bat igo da aurren, 2018ko batez besteko 7,44 euroen aldean.

Azaldu dugun mlduan, gure proiektuaren zerbitzua zenbait momentu desberdinetan eskainiko diegu bezeroei eta beraz, haiek egiten duten zerbitzua ezberdin ordainduta egongo da egoeraren arabera. Eta beraz, gu irabaziko duguna ere derberdina izango da.

Merkatuaren ikerketa egin ondoren, behatu dugu gure bezeroak hurrengo prezioak ordaindu beharko dituztela:

- Lehenik, umeak egunez zaintzeaz arduratzen den zaintzaileak 7,44€ kobratuko ditu orduko, beraz, gure enpresak irabaziak izan dadin, 13€ orduko ordaindu beharko dute umeen gurasoak. Ordu-tegi berdina aukeratzen duten umeek, irteera bat egiten badute prezioa apur bat igoko da, autobusa edo tren ordaintzea eta ekintzaren arabera, zerbait ordaindu behar izatekotan, ere dirua kostatzen baitu. Beraz, prezioa 15€-koa izango litzateke.
- Bestalde, aiton-amonak zaintzeaz arduratzen den zaintzaileak, ere 7,44€ kobratuko ditu orduko, beraz aurreko kasuan bezala, enpresako kideok irabaziak jasotzeko, bezeroari 13€ orduko ordaindu beharko dituzte.
- Beste kasu batean, webgunearen bidez haien zaletasun berdinak egiteko prest dagoen pertsona aurkitzen duten bezeroek, webgunean 5€ ordaindu behar izango dituzte orduko.
- Umeak gauez zaintzeaz arduratzen den zintzaileak 11€ kobratuko ditu orduko, beraz, gure enpresak irabaziak izan dadin, 20€ orduko ordaindu beharko dituzte haurren gurasoek.
- Lokalean dauden umeak etxerako bidean joaten laguntzeko aukera egongo a gauez, horrek, 4€ igoko du amaierako prezioa. Horrek, adierazten du 24€ ordaindu beharko dituztela umeen gurasoek ordu bakoitzeko, eta gure zaintzaileek, atal proportzio horretatik 2€ gehiago kobratuko dituzte, beraz, umeak etxera eramatekotan, zaintzaileek 13€ kobratuko dituzte orduko.